


1. IZARREN HAUTSA



1. Nola deitzen da unibertsoa sortu zuen eztanda? Aukeratu erantzun egokia.

Big-Bang

Boom

Eztanda erraldoia

2. Osatu testua falta diren hitzekin.



Teoria asko daude baina zabalduena, _____ edo Big - Bang-arena da.

Big-Bangaren teoriaren arabera, unibertsoa _____ guztia gune bakar batean _____ zegoen, baina duela _____ urte inguru eztanda egin zuen eta unibertsoan zehar _____ zen materia.

Sakabanatutako materia horretatik sortu ziren gero, _____, izarrak eta planeta - sistemak.

galaxiak bilduta zabaldu 15.000.000 Eztanda Handia materia


3. Lotu hitz bakoitza bere definizioarekin.

Unibertsoa	Unibertsoa astroen arteko distantziak neurtzeko erabiltzen da.
Astroak	Astro guztien multzoa eta multzo horrek betetzen duen espazioa.
Galaxiak	Berezko argia duten astroak dira.
Izarrak	Izarrez osaturiko irudiak dira.
Konstelazioa	Zeruko berezko gorputzak dira.
Argi-urtea	Izar multzo erraldoiak dira, milaka milioi izar bil ditzaketanak.

4. Begiratu irudiak eta erantzun. Zeintzuk dira galaxiak? Jarri itzazu galaxia irudikatzen duten zenbakiak:



5. Bete eskema:



6. Aukeratu egia diren esaldiak.



- a. Lur planetan bizi gara.
- b. Eguzkia lurraren satelitea da.
- c. Eguzkiak argia eta beroa ematen digu.
- d. Ilargia lurraren satelitea da.
- e. Ilargia distiratsua da, berezko argia duelako.
- f. Ilargiak ez du berezko argirik, eguzkiaren argia islatzen du.
- g. Eguzkia da, eguzki sistemaren erdigunean dagoen izarra.

7. Zergatik da bizitza posible lur planetan? Ordenatu hitzak esaldiak osatzeko.

egotea kokapenari ura Eguzkiarekiko egoera esker, likidoan
posible da.

1.

atmosfera ugariko dugulako. Oxigeno

2.